

**ZUMAIA LANTZEN S.A.ren  
ADMINISTRAZIO KONTSEILUA**

**78ZK-KO AKTA**

**ZUMAIA LANTZEN S.A.ren Administrazio Kontseilua ZUMAIAn bildu da, bi mila eta biko abenduaren 23an.**

**BERTARATUAK:**

**Lehendakaria:** Rikardo PEÑA KINTELA  
**Batzarkideak:** Migel APERRIBAI ZARAUTZ  
Asier ESNAL ALBIZU

**Idazkaria:** Miren ETXEZARRETA GARMENDIA

FELIPE GUTIERREZ SERVAN jaunak ezin duela etorri adierazi du, eta bere ordezkari Ricardo Peña Kintela lehendakariaren esku utzi du.

Bilerara etorri dira Luziano Paguegi, udal arkitektoa eta Tomas Eizmendi, ESARBE S.A.ko ordezkaria ere.

**EGUNEKO AZTERGAIK**

1.- Aurreko Kontseiluko Akta irakurri eta onestea (2002ko irailaren 30eko 77.akta).

Kontseiluaren 02/09/30eko 77zk-ko akta irakurri da, eta aho batez onartu da zuzenketarik egin gabe.

2.- Informazio Orokorra.

Geretxueta Kooperatiba S.Koop. osatzeko jarraitutako prozesuaren berri eman da. Une honetan 104 bazkidez osatuta dago eta lehenengo ekarpena egin dute. Orain, aurreikusita zegoen bigarren ekarpena egiten ari dira.

Bazkideak hartzeko prozesuak aurrera jarraitzen du, hasita dauden 120 etxebizitzak osatzeko.

Kontseiluak adierazi du aurkezten diren kasuetan bazkideak onartzeko irizpideak Zumaia Lantzen S.A.k ezarri beharko lituzkeela. Dena dela, kontuan hartu behar da, azken batean, Zumaian erroldatuta egotearena izan ezik, Babes Ofizialeko Etxebizitza batean sartzeko gainerako baldintza guztiak Euskal Gobernuak finkatutakoak direla, eta hori horrela izanik, Zumaia Lantzen S.A.k irizpide horiek jarraitu behar dituela.

Obrei dagokienez, Osa anaien lursailen berehalako okupazioa lortu bitartean ( gutxi gorabehera 500m<sup>2</sup>), akordiorik gabeko lurjabe bakarrak baitziren, egin gabe geratu zen lurberdinketari ekin zaio berriro.

BOEko 120 etxebizitza eraikitzeke lanak hasita daude. Obren Udal Baimena eskuratuta, abenduaren 17an sinatu zen Zuinketa-Akta.

### **3.- Babes Ofialeko Etxebizitzentzat baimendutako Salmenta Prezioen Aldaketa. Eragina Geretxueta Kooperatibari urbanizatutako lurzorua salmenta prezioan.**

Gerentziak jakinarazi du Euskal Gobernuak 2002ko abenduaren 3an, Babes Ofizialeko Etxebizitzentzen gehienezko salmenta prezioa berrikusi zuela, Geretxueta Sustapenari dagokionez, ondorengo era honetan geratuz:

75m<sup>2</sup> baino gehiagoko Etxebizitzentzen Salmenta Prezioa: 1.082,00 €/m<sup>2</sup>  
75m<sup>2</sup> baino gutxiagoko Etxebizitzentzen Salmenta Prezioa: 1.190,20 €/m<sup>2</sup>  
Garaje eta trastelekuen Salmenta Prezioa: 382,00 €/m<sup>2</sup>

Bi mila eta bigarren urteko irailaren 30eko 77. Kontseiluan, Puntanuetako Plan Partzialaren 3,5,6,7,9 eta 10 lur-zatietako lursailen salmenta prezioa finkatu zitzaion Geretxueta Kooperatibari, Babes Ofizialeko 120 etxebizitza sustatzeko bideragarritasuna ahalbidetzeko prezio gisa, eta beraz, berrikusi litekeena Euskal Gobernuak finkatutako Salmenta-prezioan aldaketaren bat emanez gero, hasierako Kalkulurako erabilitako Salmentako azken prezioaren eta Kostu totalaren prezioaren arteko oreka-irizpide bera erabiliz.

Aurreko irizpidearen arabera egindako azterketa ekonomikoa aurkeztu zaio Kontseiluari, BOEn salmentarako gehienezko prezio berriak kontuan hartuz, aktarekin batera doazenak. Eta hor azaltzen da urbanizatutako lursailen salmenta-prezioa 372.873.682 pezetako dela, hau da, 2.241.015,96 €

Kontseiluak erabaki du Geretxueta Kooperatibari kopuru hori finkatzea Puntanuetako Plan Partzialaren 3,5,6,7,9 eta 10 lur-zatietako salmenta prezio gisa. Hori eginda, 621.015,96 euroko soberakin bat sortzen da lehenengo salmenta-prezioan lortuko litzatekeen kopurua kontuan izanik. Kontseiluak erabaki du soberakin horren %75a, hau da, 465.671,97 euro erabiltzea Udalak Tasatutako Etxebizitzetarako erabakitako salmenta-prezioa gutxitzeko eta %25 Zumaia Lantzen S.A.ren diru sarrerak gehitzeko, eta kopuru hori Administrazio Kontseiluak bidezkoz hartuz gero, Babes Ofizialeko Etxebizitzentzen azken likidazioan eman litekeen desfaseren bat estaltzeko erabil daiteke.

#### 4.- 2003. Urterako Jarduera Plana.

Kontseiluari 2003.urterako Jarduera Plana aurkeztu zaio. Gerentziak adierazi du hasita dauden jarduerak errematatu eta bukatzeko plana dela, hara nola; Puntanuetako Lurberdinketa, Erdiko plazan eta 3.Sektoreko A-6 lur-zatiaren inguruan egiteko dagoen urbanizazioa eta Ertzeko pasealekuaren amaiera 21.HGAn. 2003.Urtean zehar egingo diren inbertsio garrantzitsuenen artean dago lurrak erostea 1.Sektorean. Erosketa hauek kontuz egin beharko dira, Kosta Legearen aplikazioaren eragina eta bere inguruan dauden Hezeguneen

Babesa dela eta, lurren benetako aprobeitxamenduari buruz une honetan dagoen zalantza kontuan edukiz.

Kontseiluak onartu egin du 2003.urteko Jarduera Plana eta aktari erantsi zaio.

5.- Beste zenbait eta/edo Eskari-galderak.

**Migel Aperribai jaunak gogorarazi du Zumaia Lantzen S.A.k bere idazkietan, jakinarazpenetan eta oro har, bere jardueren garapenean euskara erabili behar duela, Zumaiako Udalak hartutako konpromisoaren arabera.**

Eta beste aztergairik gabe, akta honek zehatz-mehatz jasotzen duen bilera bukatutzat eman zen, eta nik idazkari honek, sinatu egin dut lehendakariak ontzat eman ondoren.

O. E.  
LEHENDAKARIA

IDAZKARIA